

Prentsa oharra

Nota de prensa



HONDARTZA DENBORALDIA AMAITU DA ERABILTZAILERAKIN GUTXIAGOREKIN ETA MARMOKA ETA KARABELA PORTUGALDARREN GERTAKARIEKIN

Irailaren 30ean amaitzen da aurtengo 2023ko hondartza-denboraldia. Oro har, normaltasuna izan da nagusi, meteorologiaren arloan izan ezik: izan ere, zenbait egunetan, eguraldia zela eta –DANA barne–, ez da gomendatu Donostiako hondartzak erabiltzea.

Carlos García Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotziak adierazi duenez, «esan dezakegu udako hilabete guztietan, ekainaren 1etik irailaren 30era arte, hondartzetako okupazio-maila ertaina/handia izan dela. Udalari dagokionez, balantze positiboa egiten du, erantzun egokiak eman baitaizkio erregistratutako gertaera bakoitzari, batez ere karabela portugesez eta marmokez sortutako arazoaren aurrean: izan ere, kasu horietarako erregelamendu bat onartu behar izan zuen Udalak, eta horrek ondo funtzionatu du».

Denboraldia hasi aurreko maren ondorioz, hondartzetan ez zen hondar mugimendu handirik egin behar izan, sarbideetako eremuetan izan ezik, erabiltzaileen joan-etorri normala eta ohiko birprofilatzeak errazteko. Udaren erdialdean, DANA ekaitzak hondar asko eraman zuen tenis-klubetik gertu dagoen eremutik, eta, gainera, ekaitzaren ondorioz, horman zulo bat ireki zen. Horma konpontzen ari dira, eta azken egunetako mareek hondar dezente ekarri dute bertara.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Zurriolako hondartzan ere ohikoa den bezala, bainularien eta surflarien bizikidetzak ahalbidetzeko espazioak ezarri dira. Aipatu behar da bainulariek kexa ugari aurkeztu dituztela bainurako leku gutxi dagoelako, baina ez da bereziki arazo handirik egon surflariekin.

Hondartzetan bainatzeko uraren osasun-kontrola egin da astero, eta emaitzak onak izan dira. «Denok dakigun bezala, karabela portugesak, marmokak eta salpak iritsi izana aipagarria izan da uda honetan: ziztada larriak eragin dituzte, batzuetan larriak, sorosleek eta ospitaleek artatu behar izan dituztenak. Gure kalkuluen arabera, 300 ale inguru erretiratu dira, batez ere FCCk badia garbitzeko erabili duen itsasontziaren bidez», azpimarratu du Carlos García.

Garbiketari dagokionez, hondakinen bilketa apalagoa izan da aurten aurreko urteetan baino, ziur asko eguraldi txarraren ondorioz, egun eguzkitsuen kopurua apalagoa izan delako aurten eta, horren ondorioz, erabiltzaileen kopuruak behera egin duelako, baita hondakinenak ere.

	2022	2023
ERREFUSA	413.294 kg	357.647 kg
BEIRA	4.231 kg	1.266 kg
PLASTIKOA	34.046 kg	14.948 kg
PAPERA	951 kg	1.008 kg
ZURA	63.080 kg	45.420 kg
ORGANIKOA	1.349 kg	2.252 kg
PIXOIHAK	18 kg	105 kg
ELEMENTU FLOTATZAILEAK	1.400 kg	309 kg

Guztira, 25 langile arduratu dira egunero hondartzak ahalik eta egoera onenean edukitzeaz, eta 13 ibilgailuk lagundu diete garbiketa-lanetan, besteak beste, traktoreak, bahegailuak, beldar mekanikoak, kamioiak eta bi itsasontzi erabili dira lan horiek egiteko. Itsasontzietako bat uharteko hondakinak garbitzeko eta kentzeko erabili da, eta beste bat badiako elementu flotatzaileak erretiratzeko. Aurten, arreta berezia jarri da marmokak eta karabela portugesak biltzeko lanetan.

Gogorazi nahi dugu hondartzetan 71 paperontzi daudela errefuserako, 78 plastikozko ontzietarako, 48 zabor organikorako, 24 beirarako, 24 paperkartoarako eta beste bat pixoihaletarako.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Salbamendu eta Sorospen Zerbitzuari dagokionez, aurtengo kanpaina nahiko berezia izan da karabelen eta marmoken ziztadak oso maiz gertatu direlako, bai eta hainbat arrazoirengatik bainulari ugari zauritu direlako.

	KONTXA	ONDARRETA/ SANTA KLARA	ZURRIOLA	GUZTIRA
EMANDAKO SOROSPEN- KOPURUA	365 346	304 459	152 526	821 1.131
ERRESKATEAK	5 4	6 17	28 72	39 93
EBAKUATUAK	40 25	8 6	31 36	79 67
GALDUTAKOAK	50 79	15 12	16 124	81 215
LAGUNDUTAKO BAINUA	280 394			280 394
MAKULUAK	67 102			67 102

** gorriz 2022ko denboraldiko datuak

KABINAK

Denboraldian zehar erabiltzaileen kopuruak ere behera egin duela ikusi da

→ KONTXAKO HONDARTZA

	KABINAK (dutxa+lehiatila)	DUTXAK (dutxa bakarrik)	ABONUAK	GUZTIRA	KONTSIGNAK
GUZTIRA	8.574 9.966	10.958 9.376	23.704 26.405	43.236 45.747	5.627 8.673

→ ONDARRETA KO HONDARTZA

	KABINAK (dutxa+lehiatila)	DUTXAK (dutxa bakarrik)	ABONUAK	GUZTIRA	KONTSIGNAK
GUZTIRA	2.894 3.358	5.285 5.248	12.052 10.146	20.231 18.752	2.471 3.524

Prentsa oharra

Nota de prensa

→ ZURRIOLAKO HONDARTZA

	KABINAK (dutxa+lehiatila)	DUTXAK (dutxa bakarrik)	ABONUAK	GUZTIRA	KONTSIGNAK
GUZTIRA	1.346 1.626	2.596 3.360	2.606 2.450	6.548 7.436	935 1.030

Olanen, karpen eta eguzkitakoen kanpaina irailaren 15ean amaitu zen. Horietatik 73 bakarrik egon dira aurren harpidedunik gabe, gehienak Zurriolako hondartzan. Libre zeuden guztiak egunero jarri dira alokairuan, hala nahi zutenek erabili ahal izateko.

Horrela bada, hondartza-denboraldia amaitu denez, hondartza-guneko balizak, gabarroiak, sorosleen zaintza-dorreak eta beste zerbitzu batzuk desagertu egingo dira datozen egunetan.

Urriaren 1etik maiatzaren 31ra arte, txakurrak sartu ahal izango dira hondartzan. Hala ere, gogoan izan behar da jabeek gorotzak jaso behar dituztela, hiriko beste lekuetan bezala, Gizabideari buruzko Ordenantzak xedatuta dagoen moduan. Betebehar hori ez betetzen ez bada, Udaltzaingoak 50 eta 200 euro arteko isuna ezar dezake.